

## Beldurra aldez aldatuko dugu

Hemen gaude, berriz ere, eraso matxisten aurrean erantzuna ematen. Ez gara ahulak ez gara sumisak! Nazkatuta gaude beti biktima bezala agertzearekin. Kaleak eta gauak indarrez eta amorruez hartu ditugu eta hartuko ditugu hemendik aurrera ere. Gureak direlako!! Norbaitek beldurra izan behar badu izan zaitez zu, erasotzaile. Nahikoa da!! Aurrean gaituzue, amorruez beterik eta guztiari edonola erantzuteko prest!! Ez diogu genero maskulinoari beldurra eragin nahi, baina bai erasotzaileari. Zilegia baitugu hori egitea. Biolentzia sistemak emakumeei eragiten dien beldurra da eta egunerokoa da. Gurea, ordea, guzti horren aurreko erantzuna da, autodefentsa da. Bai emakumeak gara eta beldurrik gabe, libre eta indartsu topatuko gaituzue. Beti esna!

Gauetz eta kaleez gain bizitzak eta gorputzak dira gureak! Aske gara eta aske biziko gara! Zoritxarrez sistema kapitalista heteropatriarkalak mugak besterik ez ditu jartzen hori gerta ez dadin. Ez zaie interesatzen emakume libre eta askeak egotea. Sumisioan nahi gaituzte, erabakitze gaitasunik gabe, gure gorputzen gainetik jarrita. Sistema patriarkalak hariak ongi lotzen ditu hori gertatzeko eta babesleak bilatu leku guztietan. Horrela botere harremanak sortu eta emakumea bigarren planoan utzita. Baina gu ez gaude prest inoren azpitik egoteko. Zoro, eder eta katerik gabeko emakumeak gara, gure bizitzak nahi ditugun erara bizitzeko prest. Hau da gure iraultza; histerika hauek historiko bilakatu arte.

Bidea, baina, ez da erraza. Gure gorputzak objektu sexual irudikatzen diren unetik, panpina gisa erabiltzeko zilegitasuna ematen du sistemak. Guk argi dugu: bortxaketek eta erasoek biolentziarekin dute zerikusia eta ez sexuarekin. Eta hori onartzen duen guztia ere bai. Libre izateko bidea, beraz, ez da soilik gertakarien aurrean erantzunak ematea. Baizik eta erasorik ez gertatzeko pausuak ematea, libre izateko pausuak ematea. Guk libre izan nahi baitugu eta ez ausartak. Horrela, autodefentsa feministara deitzen zaituztegu denok. Gure armekin jabetzera eta erabiltzera. Inork ez du gure gorputzen gainetik erabakiko inoiz.

Denak gara berdinak zapaltzen gaituztenen aurrean. Agi utzi nahi dugu batzuek bi aldiz garela epaituak eta beste batzuek hiru edo lau aldiz direla epaituak. Angela Davisek zioen: "Feminismoak homofobia, klase esplotazioa, arraza eta generoa, kapitalismoa eta inperialismoaren aurka borrokatu behar du". Orain ez dugu izenik, ez abizenik. Talde bat gara, pertsona indibidual askoz osatutakoa. Aurpegia estaltzen dugu ikusiak izateko. Hau ez da gure bakea, hau gerra da eta iraultza egingo dugu. Hilko gaituen gerrarik ez, zapalduko gaituen bakerik ez.

Erre zenituzten sorginen alabak gara. Egin duzuen inoiz ahaztuko ez dutenak. Egiten ari zaretena inoiz onartuko ez dutenak. Sorginak gara, erre ezin izango dituzuenak. Jakizue piztu zenuten sua ez dela inoiz itzali eta orain gure eskuetan dagoela. Ezin argiago esan. Logika berdinean jarraitzen duen sistema zapaltzailea irauli arte ez dugu gelditzeko asmorik. Ez dugu sua askatzeko askatzeko asmorik. Edozer erretzeko prest gaude! Botere harremanik ez! Kaleak eta gauak gureak dira!! Gure gorputzak gureak dira! Iraultza feminista izango da edo ez da izango!! Gora borroka feminista!